

2009KO MAIATZAK 28

28 DE MAYO DE 2009

ORGANO: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO MAIATZAK 28

DIA: 28 DE MAYO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Cristina FORCADA UNANUE.

Paloma HEREDERO NEGREDO

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

IDAZKARIA: LIOBA MAIZA RECONDO
SECRETARIO.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la sesión
por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskerrik asko, hona etortzeagatik, gaur
Maiatzak hogeitazortzi, osteguna, arratsaldeko zazpiretan, udaletxean,
Pleno honi hasiera emango diogu,
Aurrengo puntua:

AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA: Bi
akta dauzkagu, bat martxoak 26koa eta bestea maiatzak 12koa, bateren
batak zerbait esateko, Ezerrez.

Bigarren puntua:

**URTETA ZABORTEGIA ITXI, ZIGILATU ETA
ETORKIZUNEAN MANTENTZE LANAK EGITEKO
ESTALDURA FONDOAREN NAHIKOTASUNA
BERMATZEAREN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA.**

Hor diktamen bat daukagu, lehengoan hirigintza batzordean egin zena,
Andoni ez dakit zuk edo nahi baldin baduzu nik letu edo...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nahi duzun bezala,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Irakurriko dut:

2009KO MAIATZAREN
25EKO HIRIGINTZA
BATZORDE INFORMATI-
BOAREN IRIZPENA,
ONDORENGO LANKIDETZA-
HITZARMENAK
EGUNERATZEKO

DICTAMEN DE LA
COMISION INFORMATIVA DE
URBANISMO DE 25 DE MAYO
DE 2009 SOBRE
ACTUALIZACION DEL
CONVENIO DE
COLABORACION PARA:

1.-URTETA ZABORTEGIA
ITXI, ZIGILATU ETA ETOR-
KIZUNEAN MANTENTZE

1.-GARANTIZAR LA
SUFICIENCIA DEL FONDO DE
COBERTURA PARA EL

LANAK EGITEKO
ESTALDURA FONDOAREN
NAHIKOTASUNA BERMA-
TZEKO

2.- GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ORDAINDU BEHAR ZAION HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAREN TARIFAREN EKARPEN-SISTEMA FINANTZATZEKO.

Urola Kostako Udal Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak, 2009ko martxoaren 5eko bilkuran, bi lankidetzak hitzarmen hauek onartu zituen:

1.- Urteta zaborteia itxi, zigilatu eta etorkizunean mantentzen lanak egiteko estaldura fondoaren nahikotasuna bermatzeko 2007ko maiatzaren 15ean Udal Elkarteak eta udalek sinatutako lankidetzak hitzarmena eguneratzea.

2.- Urola Kostako Udal Elkartearen eta Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako udalen arteko lankidetzak hitzarmena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari ordaindu behar zaion hiri hondakinen kudeaketaren tarifaren ekarpen-sistema finkatzea.

3. -Lankidetzak hitzarmen horien berri eman da.

CIERRE, SELLADO Y FUTURO
MANTENIMIENTO DEL
VERTEDERO DE URTETA.

2.- FIJAR EL SISTEMA DE APORTACIONES DE LA TARIFA DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA CORRESPONDIENTE A LA GESTION DE RESIDUOS URBANOS.

La Junta Directiva de la Mancomunidad Urola Costa, en sesión celebrada el día 5 de marzo de 2009, acordó aprobar los siguientes convenios de colaboración:

1.- Actualizar el convenio de colaboración firmado entre la Mancomunidad y los ayuntamientos el día 16 de mayo de 2007 para garantizar la suficiencia del fondo de cobertura para el cierre, sellado y futuro mantenimiento del vertedero de Arteta.

2.- Fijar el sistema de aportaciones de la tarifa del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa correspondiente a la gestión de residuos urbanos, mediante convenio entre la Mancomunidad Urola Costa y los ayuntamientos de Aia, Getaria, Orio, Zarautz y Zumaiá.

3.- Se da cuenta de los referidos convenios de colaboración.

IRIZPENA:

Ondorioz, 2009ko maiatzaren 25eko Hirigintzako batzorde informatiboan egindako bozketaz:

Aldeko: 3 (EA, Talde Mistoa, EAJ-PNV)

Aurkako: batez eta

Abstentziorik ere batez

ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipenan jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen tituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47 artikuluan araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzan bertan daudenen gehiengo sinplea beharko da):

1.-Aipatutako bi hitzarmen horiek onartzea.

2.-Alkateari sinatzeko ahalmena ematea.

DICTAMEN:

En consecuencia la Comisión informativa de Urbanismo de fecha 25 de mayo de 2009, tras la siguiente votación:

A favor: 3 (EA, Grupo Mixto, EAJ-PNV)

En contra: 0

Abstención: 0

Acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de los miembros presentes, la siguiente PROPUESTA:

1.-Aprobar los dos mencionados convenios.

2.-Autorizar al Alcalde para su firma.

Eta hau azken finean ohizko plenoan aurrengo puntua eta bigarren puntuari buruz ari gara hitzegiten, azken finean berdinak direlako, besterik gabe hitza ematen dut PNV-k zerbait esateko, Lide

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Ni hirigintza batzordean ez nago baina bueno, gure aldetik behintzat, aldeko botua argia da, Azkenean hemen tratatzen duguna da finantzaketa hori nola aurrera eraman, ez? Bai, uztailaren hamaseirarte tasa 74ko €tako tasa hori, daukagun hitzarmenaren arabera uztailaren hamaseian bukatzen da eta

hemen botatzera goazena da ba... uztailaren hamaseian ez hastea ordaintzen geroratutako ekarpena udalak ez duena egin baizik eta zabortegia ixten denean bi mila eta hamabia da daukagun fetxa, bi mila eta hamabitik aurrera ordaintzen hastea geroratutako tasaren parte hori, hau da, beti esan dugun bezala, tasa 74 baldin bada aurten % 47 a da xigilatze eta mantentze lanetarako eta hori da udalek gaur egun ez dutena jartzen, udalek jartzen dute bakarrik gastu arruntetarako % 53a; orduan hemen planteatzen dena da horrela jarraitu eta gelditzen zaigun parte hori, zabortegia ixten denean ordaintzen hastea, eta ez orain, uztailaren hamaseian zeren zabortegia irekita mantenduko da eta ez dauka inongo sentidorik.

Hori aurrenengo hitzarmenari buruz, bigarren hitzarmena uztailaren 16tik aurrera, uztailaren hamazazpitik altako gestioa GHK-k hartzen du, denok dakigu, eta tarifa aldatu egiten da ia ez da ixurketako tarifa bakarrik izango 74koa orain arte funtzionatu duen bezala, baizik eta 128, ez barkatu, 125,74ko tarifa izango da eta hor Mankomunitatean planteatu duguna da guri dagokiguna, hau da, ixurketa tasa baita ere parte bat geroratu orain egiten den bezala, ez? Ixurketa tasa 72,44 baldin bada ba.. horri aplikatu baita ere portzentaia berdina, 53a ordaindu egingo dute udalak eta % 47a geroratu egingo da; orduan zabortegia ixten denean ikusiko da zenbat geroratuta daukaten udal bakoitzak eta ordaintzen hasi beharko dute xigilatze eta mantentze lan horiek kubritzen joateko, hori da labur bilduz bi hitzarmenen edukia, ez? eta gure aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko, Xabier, Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA Jna.: Nik galdera bat, zer egin behar dugu biak aparte bozkatu, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno bai, horrela dago eta aparte bozkatuko dugu, baina bueno nola relazioa daukaten eztabaidatzeko orduan, behintzat...

XABIER OLAIZOLA ANTIA Jna.: Ez, ez nik esan nahi nuke, bakarrik, aurrenengoaren aldeko botua emango dugula, pentsatzen dugulako ba... hori itxi eta gero mantentze lanak jarraitu behar direla ba...ez dakit zenbat urtean eta beharrezkoa ikusten dugulako eta bigarrrengoa, berriz, kontsortzioak errausketaren aldeko apustua egin duenez, guk, Aralar beti aurka azaldu denez ba... aurkako botua emango diogu

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, Talde mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Hartu behar dugun erabaki hau, kudeaketa eredu baten baitan kokatu behar dugu eta erabaki honek egiten duena da errauskagailuaren kudeaketa eredu bermatu ahal izateko edo martxan jarri ahal izateko urratsak, ematen ditu zentzu hortan, gu norabide hortan ez gaude ados eta gure irakurketa egingo dugu gai honi inguruan, ondoren gure bozka, honezkero usten dut denak pentsatuko duzutela kontra izango dela, bai aurrengo puntuan eta bai bigarrenengan, baino gure kontrako bozka zergatik izango den argudiatu nahiko nuke,

“ 2007an Gipuzkoako zabortegien egoera larria ikusirik Aldundia, Udal elkarteak eta Donostiako udalak hitzarmen bat sinatu zuten.

Hitzarmen horren arabera, 2009ko uztailaren hamaseian Gipuzkoako zabortegi guztiak itxiko ziren.

Urte eskas batean, hitzarmen horretan jasotakoa ez zela beteko ikusi genuen. Zabortegiak beteta eta lekurik gabe daude, zioen udal elkarteko Lehendakariak 2008ko otsailean, zazpi hilabete eskas behar izan genituen Lehendakariaren hitzak aldatzen ikusteko.

Errauskagailua inposatzeko erabili da denboraren faktorea, ez dago beste zertarako denborarik, esaten zen, edo errauskagailua edo kaosa, orain nondik atera den jakin gabe denbora eta lekua daukagu, baino errauskagailua inposatzen jarraitzeko.

Duela lau urte zabortegia haunditzeko proiektu bat onartu zen udal elkartean. Urteetako zabortegiaren bizi iraupena hamabots urtez luzatzen zuena, ondoren proiektu hori kaxoi batean sartu zen errauskagailua zelako irtenbide definitiboa eta orain berriz, zabortegiaren bizitza luzatzekotan gara berriz ere.

Hiru urte t´erdi zabortegiaren bizitza luzatzeko hiru, lau edo bost miloi euro gastatzera goaz. Inork ez daki zenbat kostatuko diren egokitzapen lan hauek, inork ez baiditu kalkulatu, baina berdin da tonako zenbat kobratu behar den kalkulatu eta herritarrek faktura ordainduko dute. Ordaintzeko orduan, bai, herritarrak hartzen dira kontuan, baino zaborraren kudeaketa zein izan behar den erabakitzeko orduan, ez.

Denbora gehiegi galdu da alferrik, 90. hamarkadan Andoainen egin behar zen errauskagailua zaborraren kudeaketarako erabiltzea baztertu zuen orduko Diputazioko agintariak. Beste aukera batzuk aztertu behar omen zituzten partehartze prozesu baten bidez, oraindik emaitzen zain gaude. Hamar urte ondoren, berriz, errausketa omen zen irtenbidea, Urteta nola haunditu, txikitu eta berriz nola haunditu nahi den ere ikusi dugu, hamar urtez zaborrak kudeatzeko inongo planik gabe pasatzen utzi da.

Mankomunitateko aurreko Lehendakariak 2009an zabortegia itxiko zela behin eta berriro esan zuen. Esan baino gehiago ziurtatu egin zuen. Guk Ezker Abertzaletik hitz horiei sinesgarritasun gutxi eman genien, orain bi

mila eta hamabian itxiko dela diote, ez da zehazten ze hilabeteen itxiko den baino bi mila eta hamabian itxiko omen da. Aurreko datari eman genion sinesgarritasun berdina ematen diogu data berri honi.

Erabaki hau hartu aurretik ez zen egin zabortegiaren bizi iraupenak luzatzeko eta zabortegia handitzeak ingurumenean zer eragin izango zuen jakiteko egin behar ziren azterketak. Ez zeuden idatziak egokitze lanak burutzeko behar ziren proiektuak, ondoren zenbat kostatuko zitzaigun guzti hau jakiteko baino berdin zitzaion, zeren, bai ala bai Urteta handitu behar zen, errauskagailua delako irtenbide bakarra eta herritarrek horrela nahi dutelako nahiz eta ez zaien galdetu”

Beraz, gure ustetan zabor kudeaketa eredu hau ez da, Gipuzkoak behar duen eredua, beste eredu batzuk posibleak direla defendatu dugu eta badugu itxaropena hori ere demostratu egingo dugula, beraz, eredu honi ezetz diogu eta momentu honetan bozkatzeko daukagun puntu honi ere ezetz esaten diogu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Guk gure aldetik, bere garaian adierazi genuen, honen inguruan eztabaidatu zenean udaletxe hontan aurreko legealdian gure kezkak zeintzuk izan ziren.

Garai hartatik hona euri eta eguzki asko egin ditu eta eztabaidatzeko une haundiak izan dira eta garbi geratzen zaiguna da ez dela demostratzen garbi behintzat, beste sistema egokiagorik zein den, batez ere jakinda bueno behintzat, ez dakigu edo ez dugu soluziorik ikusi eta ematen du beste herri batzutan ari direla bilatzen eta ikusiko dugu horren erantzuna zein den, ona baldin bada, noski, beste alternatiba bat badagoenaren itxaropena ere zabaltzen da, baina momentuz duguna kudeatu beharra dago eta kudeatu beharra dagoen hortan aurre egin behar zaio daukagunari, ez?

Nik, ikuspegi hortatik aldeko botua emango dugu EA-ren izenean baino bai anotazio bat egingo nuke ekarpenari dagokionez eta gauden garai –krisi garai- hauetan egonda seguruazko eztabaidatu beharko dugu hau egin ondoren eta Mankomunitate barruan etbr. ea ekarpen horiek bere horretan mantendu behar diren edo beste epe muga batzuk jarri beharko diren, edo igual tira beharko dugu, ez dakit, Mankomunitateko remanentetik edo nondik, baino nik usten dut hori eztabaidatu beharra dagoela azken finean, udaletxeak daukan ekarpena ere asko murriztuko dela Diputaziotik eta ahal den neurrian behintzat aztertu ze... beste posibilitate dauden beste ekarpen horiek denboran ahal baldin bada behintzat luzatu daitezkeen; baina hori badakit ez dela gaurko gaia eta hori Mankomunitate barruan eztabaidatzeko gai bat izango litzatekeela.

Besterik gabe, beste turno bat irekiko dugu eta honekin bukatu egingo dugu, Lide?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Nik bakarrik esan, bai Aralarrei eta bai Ezker Abertzaleei, debatea ez dela foru hau inzineradoraren aldekoa edo ez aldekoa, bakarrik geroratze bai Urtetaren tasa eta bai GHK-ren tarifaren parte bat geroratzeko erabakitzen ari garela. Geroratzea bai, edo geroratzea ez. Ezetzkoa irtengo baluke ba... tarifa bai tasak onartuta daudela eta udalak bere ehuneko ehunean ordaindu beharko lukela.

Dakigula udalentzat ze esfuertzo den bai tarifa eta bai tasa horiek ordaintzea eta horregatik proposamen hori bere garaian egin zen Mankomunitatetik eta hori da ekartzen duguna, baino ez dut uste orain, ba.. bueno zure diskurtsoa ondo dago, jakina da, baina momentu hontan ez gara ari hori eztabaidatzen,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aralar? Ezerrez; Talde Mistoak? Ezerrez; guk EA-partetik ezerrez. Bozkatzera pasako gara, biak bozkatuko ditugu aurrena aurrengo puntua eta gero bigarrena, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrakoa eta EA-k Aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 7 botu (4 PNV; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 3 (Talde Mistoak)

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 7 (4 PNV; 1 EB-Berdeak/Aralar; eta 2 EA)

Votos en contra: 3 (Talde Mistoak)

Abstenciones: 0

LEHENENGOA: URTETA
ZABORTEGIA ITXI,
ZIGILATU ETA
ETORKIZUNEAN
MANTENTZE LANAK
EGITEKO ESTALDURA
FONDOAREN
NAHIKOTASUNA BERMA-
TZEAREN HITZARMENA,
ONARTZEA

PRIMERO: APROBAR EL
CONVENIO PARA
GARANTIZAR LA
SUFICIENCIA DEL FONDO
DE COBERTURA PARA EL
CIERRE, SELLADO Y
FUTURO MANTENIMIENTO
DEL VERTEDERO DE
URTETA,

BIGARRENGOA: Akordio
honen ziurtapena Urola Kostako
Mankomunitateari igortzea.

SEGUNDO: Enviar una
certificación del presente acuerdo
a la Mancomunidad Urola Kosta.

Eta Bigarrena, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aurkakoa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrakoa, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Baita ere

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrakoa eta EA-k Aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (4
PNV; 2 EA)

Aurkako botuak: 4 (3 Talde
Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar)

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 (4 PNV;; eta
2 EA)

Votos en contra: 4 (3 Talde
Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar)

Abstenciones: 0

LEHENENGOA: GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOARI ORDAINDU BEHAR ZAION HIRI HONDAKINEN KUDEAKETAREN TARIFAREN EKARPEN SISTEMA FINANTZATZEAREN HITZARMENA, ONARTZEA

PRIMERO: APROBAR EL CONVENIO PARA FIJAR EL SISTEMA DE APORTACIONES DE LA TARIFA DEL CONSORCIO DE RESIDUOS DE GIPUZKOA CORRESPONDIENTE A LA GESTION DE RESIDUOS URBANOS.

BIGARRENGOA: Akordio honen ziurtapena Urola Kostako Mankomunitateari igortzea.

SEGUNDO: Enviar una certificación del acuerdo a la Mancomunidad Urola Kosta.

Hirugarren puntua: HEZKUNTZA ETA EUSKARA.-
EBPNren 2009-2012 PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Hontan, Nerea zuri emango dizut hitza,

NEREA EPELDE AZKUE AND.: Astelehenean egindako batzordean jaso zen irizpen hau, EAJ; Aralar; eta Talde Mistoaren aldeko botuekin eta haxe dio, pixka bat aurrekariak:

1.- Zumaiako Udalak 2004an onartu zuen EBPN lantzea eta 2005-2008 Plan Estrategikoa landu zuen urte horietan. Horren ondoren, bide beretik jarraituz Euskara Zerbitzuak 2009-2012 Plan Estrategikoa landu du datozen urteotan lantzeko.

En el año 2004 el Ayuntamiento de Zumaia aprobó el Plan Estratégico 2005-2008 y lo desarrolló durante ese período. Ahora y siguiendo por el mismo camino el Servicio de Euskara ha diseñado el Plan Estratégico 2009-2012 para seguir impulsando el euskara durante estos años.

2.- 2009ko irailaren 29ko Euskara Batzordean aipatu zen Plan Estrategiko berria landuko zela HPStik bidalitako eskema berriaren eredura.

2.- En la Comisión de Euskara del 29 de septiembre del 2008 se aprobó la elaboración del nuevo plan a partir del esquema enviado por la Viceconsejería de Política Lingüística.

Beraz, 2009ko maiatzaren 25eko Euskara Batzordean ondorengo

3.- De modo que en la Comisión del 25 de mayo de 2009 se redactó

irizpena eman zen:

el siguiente dictamen.

IRIZPENA

Esan dut, EAJ, Talde Mistoa eta ARALARREN aldeko botoekin,

1.- Behin betiko onarpena ematea EBPNaren 2009-2012 Plan Estrategikoari planari, horrela datozen urteetan garatzeko moduan izan dadin.

DICTAMEN

Informo que con los votos a favor de, PNV, Grupo Mixto Y ARALAR

1.- Aprobar definitivamente el Plan Estratégico 2009-2012 del Plan General de Promoción del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Zumaia para que se desarrolle durante los siguientes años.

Eta hauxe dakarkigu Pleno honetara, o sea, Plan Estrategikoaren jarraipena beste lau urterako,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik bakarrik adierazi irizpenean ez dela ondo jasotzen Talde Politikoen izendapena, EAE jartzen du eta da Talde Mistoa, EAE-ren partez,

NERE EPELDE AZKUE, AND.: Bai, eta EA ez zegoen; EA-ko ordezkaria ez zegoen,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez zegoen, Bai.
Eta erderaz ere ANV, ba.. beraz Talde Mistoa.

Behin hori zuzenduta, bateren batek zeoze esateko, PNV? Ezerrez; Aralar? Ezerrez; Talde Mistoa? Ezerrez; eta guk ere ezerrez.

Besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Aralar?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, Talde mistoak?

NEREA EPELDE AZKUE AND.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-k ere Aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 10 botu (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 10 (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar; eta 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

EBPNren 2009-2012 PLAN ESTRATEGIKOA AHO BATEZ ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR POR UNANIMIDAD, EL PLAN ESTRATEGICO 2009-2012 DEL USO DEL EUSKERA (EBPN)

Eta laugarren puntua eta azken bigarren puntua:

SAN JUAN EGOITZAKO ESTATUTOEN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.

Ez naiz gehiegi luzatuko, dagoeneko gai honi buruz asko eta luze eztabaidatu dugulako eta plenora ere bere garaian ekarri genuen eta berriz ere bera jeitsi genuen, eta hor ibili gara batzorde bat eta beste, batez ere esaldi bati buelta ematen. Nik usten dut denok dakigula esaldian ze jartzen duen eta ze esan nahi duen eta nik besterik gabe hitza emango dizuet zeoze esan nahi baldin baduzue, Lide zeoze esateko? Esan,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Ba... bai, azkenean luze joan zaigu Estatuto hauen onarpena. Zen famoso seigarren artikulua hortan ibili ginela hasieratik inkestatuta, eta azkenean hona datorren testua ez dela, guk, hasieran planteatu genuena, baino bueno hasierako testutik aldeketara batzuk ere nabarmentzen direla eta nahiz eta ez izan gure zeharo gustokoa, onartu egingo dugula, onartu egingo ditugula Estatutoak, besterik ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aralar? Ezerrez, Talde Mistoa? Ezerrez, guk ere Ezerrez. Besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Aralarrek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA .: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-k ere Aldekoa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 10 botu (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 10 (4 PNV; 3 Talde Mistoa; 1 EB-Berdeak/Aralar; eta 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

SAN JUAN EGOITZAKO
ESTATUTOEN ALDAKETA
AHO BATEZ ONARTZEA,

APROBAR POR
U N A N I M I D A D L A
MODIFICACION ESTATUTOS
RESIDENCIA SAN JUAN

Aldaketak, esaten du... ez dakit dakizuen zertan oinarritzen den, baina jakiteko batez ere Estatutoen aldaketa batzuk daude, guretzat ia da.... guk honekin hamar mila bueltak eman ditugu, batez ere da bermatzeko alderdi politiko ezberdinen presentzia San Juan Egoitzako Juntan.

Junta horrek aldaketa batzuk dauzka eta Juntak bi ordezkari horrela esateagatik izango ditu, alderdi batetik politikoak, udaletxeakoak eta bestetik

herritarrak. Nahi baldin baduzue Estatutoak ez dakit, dauzkazuen esku artean igual ez dauzkazu, pasako dizkizuet, jakiteko zein den seigarren artikulua, etbr...

Eta besterik gabe azkenengo puntura pasako gara Eskari-Galderetara, bateren batek zeozer esatekorik, bai, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Gaur maiatzaren hogeitazortzigarrenean gaude. Ez gara... lehenago komentatzen jardun dugu gure artean eta ez gara akordatzen noiz jaso dugun Hazienda batzorderako azkenengo deialdeia.

Eta gure galdera da oso zehatza, 2008ko aurrekontuen likidazioa egina dagoen ala ez dagoen egina; onartua dagoen ala ez; eta guk dakigunez behintzat batzordean pasata ez dago eta hementxe aurrean daukagun bi mila hiruko Toki Erakundeetako aurrekontuei buruzko Arau Foralak bere 49. artikuluan dioen bezala ba... martxoaren 31a baino lehen onartua edo behintzat prestatuak behar zuten egon eta Alkateak ontzat eman ditzake baina batzordeetatik pasata egon beharko lukete eta gainera plenoari aditzera eman behar zaio onarpena eta guzti honen inguruan ba... nahiko genuke jakin zein den udaletxe honen egoera ekonomikoa eta are eta gehiago bizi dugun egoera hontan, hain zuzen, oraintxe jaso dugu hor behean, denori bidali diguten, Eudeletik denori bidali diguten eskutitz hau, non agertzen diren azkenengo egunetan periodikoetan ere agertu diren, notizia beldurgarri xamarrek diru kontuei buruz, Foru Aldundiak % 29,2 rekaudazio gutxiago nonbait izan du aurrenengo lau hilabetekoan, haundia... beherapena baina bueno martxoan aprobatu ziren 2009ko aurrekontuak udaletxe hontan, eta ordurako nahiz eta enpeinatu zineten aurrekontuetan sarreretan Foru Aldundiak joan den urrian adierazitako kopuruak mantentzen, banekien seguruenik eta horrela ohartarazi genuen pleno honetan ez zirela beteko eta guzti hau mahai gainean izan da, ba... benetan Udal Batza honetako kide bezala, kezkarria iruditzen zaigu joan den urteko aurrekontuen likidazioaren berririk ez izatea,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Barkatu, zuzenketa txiki bat zenbakitan 29,2 esan duzu; 22,9 usten dut dela.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik bakarrik, kezka ere guk gobernu bezala badaukagu eta dagoeneko 2010ko sukalde lanak behintzat baldin badira ere, 2010ko horrelako aurreikuspen batzutan hasi gara dagoeneko

azterketa batzuk eta proiektzio batzuk egiten, jakiteko 2010ko aurrekontuak nola geratuko lirartekeen, batez ere zuk eman duzu datu hori ere, kontuan daukagulako eta horrek, bere hortan udaletxeari ere dudarik gabe eragin egiten diolako.

Baina, itxierari dagokienez, ez dakit, zuk Josebak edo ia ke eta hemen Lioba baita ere badagoen, berak esplikatzeko... Joseba, bai esan

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Igual Liobak esplikatu du.

Nik bakarrik esan, egia da, sekulako... oraingo... aspaldi hontan Hazienda batzorderik ez dela egon eta arrazoiak dira gehien bat gairik ez dela egon, itxiera kenduta ez da gairik egon, eta juxtu gaur neukan asmoa egiteko baina bueno.... gero baita ere egon zen eztabaida ba... igual gobernu batzordea egongo zela bai edo ez eta azkenean ez zen egon, asteartean egongo da, hor esplikatu ditugu bi edo hiru kreditu aldaketa eta beste punturen bat, bueno hori ere asmoa neukan esateko ni ere aste hontan enteratu naizelako Eudelen gutuna esaten duena gutxi gora behera % 20 a jasoko dugula, gutxiago eta gero

Itxierari buruz esaten duzuna, egin gabe dago, baina egin gabe dago, ba... bueno igual Liobak ezin du abasto eman, dago Idazkari, Kontuhartzaile gauza pila bat egiten, eta ez da gugatik, teknikoki egin gabe dagoela.

Dena dela, dena dela badakigu denok martxoaren 31a dela epea, baina inoiz ez da aurkeztu martxoaren 31rako, ni nagoenetik hemen, ni egon izan naizenean, behintzat, beti maiatza hor inguruan aurkeztu izan da eta joan izan da beti uztaileko plenoan, beti, urtero, azkenengo urteetan,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez da likidazioa, hori kontu orokorra da, bi gauza dira,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Bai, baina urte batean edo bitan aurkeztu izan dira biak batera, edo galdetu Asierri, kontu orokorra eta likidazioa, zeren likidazioa kontu orokorrean barruan dago, likidazioa da kontu orokorraren zati bat esango genuke,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Baina kontu orokorra aurkezten denean, horri botua eman behar izaten zaio plenoan, baina likidazioa Alkateak Dekretuz onartzen du hala iruditzen bazaio eta egin behar duena da hori dekretu hori onartzearekin batera kontu ematea plenoan.

Edozein modutara ekainean gaude, astelehenean, eta azkenengo bi edo hiru hilabetetan ia ez dakit zenbat denboran Hazienda batzorderik ez izatea, likidazioa nahikoa gai ez dela, iritzia izan da, ba... bueno ni behintzat ez nago ados, eta ez zait, hori bidezkoa iruditzen,

LIBOA.: Nik bakarrik esan likidazioa gutxi gora behera egin dagoela, baina bueno gauza batzuk auditoriarekin nago zehazten eta oraindik egin gabe, kontu orokorra ez, o sea, ba... dena da ez naizelako iristen, o sea, horrela da,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Berriz diot, ez gara ari eskatzen kontu orokorra, kontu orokorra ekarri behar da azken epea usten dut dela uztailaren.....

LIOBA, IDAZKARIA.: Bai baina publikatu behar da lehenago eta orduan, o sea, ekainerako egin behar da uztailean plenora eramateko bestela ez du epea ematen, o sea que, horrela da, bai,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, baina nahi dut esan likidazioa....

LIOBA, IDAZKARIA.: Likidazio txostena egin dago baina nik auditoriarekin nahi dut zehaztu zenbait gauza eta definitiboa behin betikoa aurkeztu baino lehen, o sea, segituan aurkeztuko dugu, ezin denean ezin da, ba iasta.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ba... bale,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Hain zuzen ere, nik lehen arratsaldean Liobari komentatu diot ea posible den ekainaren erdirako edo biak batera aurkeztea, gauden garaian orain likidazioa aurkeztu datorren astean ez dakit posible izango den, hurrengoan, baina gero berriz kontu orokorra, ez dakit? Biak erabatera aurkeztu eta listo, baina hori zuek ere egin izan duzue, biak erabatera aurkeztu, eta nahi baduzu esango dizut ze urtetan eta ze fetxatan, begiratuko dut,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, bai, begiratu mesedez, zeren ez zait iruditzen, nik usten dut, beti presentatu izan dugula martxoko plenoan ez bazen, apirilekoan kontuaren itxiera eta kontuak nik dakidala edo akordatzan naizela etxe hontan beti itxi izan dira martxoaren 31ean, akaso oker nago, baina ez zait iruditzen, beste kontu bat da berriz ere diot kontu orokorra; eta klaro ez da formalismo hutsa eta ez da epeak betetzeko prurito besterik gabeko bat daukagula ez, ez, da eta esan dudana bezala, hain zuzen, eta gauden egoera ekonomikoan inoiz baino inportanteagoa iruditzen zaigu, ba... 2009ko aurrekontuaren exekuzioa ondo dihoan edo ez, edo exekutatu behar den edo ez, edo berbegiratu behar den edo ez, eta bueno zuen ardura da gurea baino gehiago, gu azken finean ez gaude gobernatzen baina horren pista inportante bat eman dezakeena Foru Aldunditik bidaltzen dizkiguten karta hauek ez ezik, ba... da jakitea nola geratzen diren 2008ko remanenteak positiboak diren, negatiboak diren edo zer gertatzen ari den, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kezka berdina daukagu, guk ere, eh? horregatik ari gara sukalde lanak egiten, Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Dena den, nik ere komentatu nahiko nuke likidazioa eta kontu orokorra gaur onartu dela Mankomunitatean, Horrela da, ez? Bai, bai, bai, horrela da. Mankomunitatean udaletxean ez bezala kontu orokorra eta likidazioa aurkeztu eta onartu akto berdinean egiten da, gaur ikusi dugu lehendabiziko aldiz eta gaur onartu dugu, udaletxean berriz egin behar dena da batzordean aurkeztu alkateak onartu dezake baino horrela egin izan da orain arte eta horrela egingo da orain ere, ondoren batzordean, hurrengo batzorde batean diktaminatu eta ondoren plenora ekarri eta onartu, horrela egin da eta horrela egingo dugu guk ere, barkatu, barkatu, baino esan nahi dudana da Mankomunitatean gaur aurkeztu dela eta gaur onartu dela, Josebak usten dut esan duela hurrengo astean aurkeztuko duela, egia da, lau, bost, egunen alde dago zuen alde

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Andoni, oker zaude, Mankomunitatean batzordeak gaur ikusi du eta gaur onartu du kontu orokorra,

Ni ez naiz esaten kontu orokorra, kontu orokorra botatu egin behar da, likidazioa, likidazioa dekretuz onartzen da, onartzen da, ez daukagu zertan botatu beharrik, baina bai badaukagu eskubidea likidazio hori edukitzeko eta jakiteko nola geratu den,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Eta Josebak ez du esan gaia ez dela nahikoa garrantzitsua batzorderik gabe egoteko, esan duena da, teknikoki arazoak egon direla Idazkaririk gabe gaude orain dela urtebete dela, Lioba esfuertzo handia egiten ari da gure Idazkari-Kontuhartzailea eta nik usten dut gehiago eskatzea, ba... ez diogula eskatzen ezin zaiolako eskatu, lehendik ere asko egiten ari delako eta bueno ba.. Idazkaria laster etorriko delakoan gaude, prozesua abian dago, azterketak definitu dira noiz izango diren, bide luze eta korapilatsu hau ea ondo bukatzen den eta Idazkaria ere gure artean denean, horrelako tramite eta horrelako lan teknikoak ba... orain ez bezala, ez nahi ez delako, ezin delako baizik, egokiago egingo direlakoan gaude,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: En fin, Lide,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Zain negoen, banekien esango zenuela, zeren konparazioak asko gustatzen zaizkizu, batzutan, Nik badakit zergatik gaur aurkeztu dudan likidazioa aurretik ia guztia eginda zegoen, baina Idazkaria amatasun bajaran zegoen, lehengo astean etorri zen eta neuk erabaki nuen esatea Idazkariak ikusi arte ba... itxarongo dugu, hori nere erabakia izan da eta horrela joan da, baino hori da Mankomunitatean gertatzen diren gauzak, hemen beste gauza batzuk dira, ez?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Eta hemen beste gauza batzuk, nik ez dut esaten horren atzetik arrazoirik ez direla egongo, orain esan dituzu zuk arrazoiak, nik bakarrik datu objetibo bat jarri dut mahai gainean, gaur tratatu dugu Mankomunitatean lehendabiziko aldiz eta Zumaia-ko udalean hurrengo astean tratatuko dugu lau, bost egunen aldea daramazute, zuek kudeatzen duzuten erakundeetan, ados, -nos ganais por cinco días, pero tampoco es tan grave lo de Zumaia-,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE JNA.: Ez, baino guk aurkeztu ditugun kontuak ia itxita daude, zuek batzordetan daukazute ba... eztabaidatzeko eta beste beta batzuk, guk dokumentu itxia eraman dugu, orduan...

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Minutu bat, ni banabil hilabete bat edo, orain dela hilabetetik edo batzordea egin nahian itxierakin, baina ezinezkoa izan da, o sea, gero gai bakarra zegoen gainera azkenengo batzordean esan genuena diktaminatu egin behar zela etbr... baina ez da presazkoa, bonifikazio bati buruz, eta ez dira gai gehiago egon, eta nik datorren astean ez da itxiera aurkeztuko eh? Porque oraindik eginda dauka eta astearterako ezinezkoa izango da eta hurrengo astean espero dugu. Asteartean egongo da batzordea kreditu aldaketa batzuketan eta beste pare bat gauzekin, Eudeleko idatzi hori etbr... baina itxiera segurazki hurrengoan izango da, bukatu gabe dagoelako,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno besterik gabe, zeoze gehiago esateko? Ezerrez, beste inork ez, Eskerrik asko denoi,

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortzirik eta hoge minutu direnean eta nik ordezkoko Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veinte horas veinte minutos y yo el Secretario acctal doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,